

## JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE JAUNAREN *CURRICULUMA*

Eibarren (Gipuzkoa) jaio 1922.eko ekainaren 23an.

1958.urtean Euskaltzaindiko euskaltzain urgazle izandatu zuten eta 1964.ean euskaltzain oso. 1967-1978 urte bitartean Euskaltzaindiko idazkaria izan zen. 1988.urtean Euskaltzainburuorde. *Ararteko* karguan 6 urtez iraun zuen.

Kide: Aranzadi Natur Zientzietako Elkartekoa eta baita Eusko Ikaskuntza, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartekoa ere.

Ohorezko kide: Euskal Idazleen Elkartea eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretari Elkartekoa.

1983-1989 urteotan *Egan* literatur aldizkariaren zuzendaria. Eta zenbait urtez Eusko Bibliographia –Jon Bilbao jaunaren gidaritzapean– taldeko laguntzaile eta zuzendaritzakoa.

1994-1995ean Ombudsman Europar Institutuko burua izan da.

Euskal Herriko argitaratzaile behinenetan parte hartu izan du, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz jarraiko gaiok landurik: Arkeologia, Etnografia, Historia, Arte, Hizkuntza eta Literatura. Kolaboratzaile izan da jarraiko aldizkari, hilabetekari eta egunkariotan:

*C.D. Eibar*-etik hasi eta ondokook dira Juan San Martinen partaidetza izan duten argitalpenak, alegia: *Programas de las fiestas de San Juan*, *Euzkogogoa*, *Gernika*, *Anaitasuna*, *Pyrenaica*, ***Euskera*** (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala), *Eibar*, *Karmel*, *Zeruko Argia*, *Munibe*, *Anuario de Eusko-Folklore*, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada*, *Hoja de Lunes de San Sebastián*, *Jakin*, *Egan*, *RIEV*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, *Boletín Sancho El Sabio*, *Boletín de Estudios del Bidasoa*, *Hondarribia*, etab.

## ERANSKINA

Argitaraturiko liburuak eta artikulak:

## A. Euskaraz

- *Juan Antonio Moguel eta Urkitza: bere bizitza ta lanak* / Juan San Martin; Euskaltzaindia'ren ardurapean. Itxaropena, Zarautz, 1959.
  - *Zirikadak*: (ipuin barregarridun liburua) / Juan San Martin. Itxaropena, Zarautz, 1960.
  - *Zirikadak* / Juan San Martin. Elkar, Donostia, 1984
  - *Eztenkadak*. Zarautz, 1965.
  - *Uhin berri*: 1964-1969 bilduma, 1. zenb.) / Juan San Martin. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1969.
  - *Euskeraren inguruan: saiaera* / Juan San Martin. Lur, Donostia, 1980.
  - *Hegatsez*: itz-lauzko bilduma: 1971 / Serafin Basauri, Juan San Martin. Itxaropena, Zarautz, 1971.
  - *Euskal Artea* (*Lur eta Gizon* entziklopedia liburukian). Oñati, 1974.
  - *Literaturaren ingurua: saiakera* / Lur, Donostia, 1980.
  - *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala. 1920-1979 urteen arteko agerkarietan azaltzen diren egile eta gaien *Aurkibidea* / *Indice* / *Index*. Bilbo, 1980.
- Bestalde aipatu *Euskera* agerkarian beste hainbat eta hainbat txosten idatzi ditu Biltzar, Jardunaldi eta hileroko batzarretan, adibidez Hilberri esparruan.
- *Erromanikoa Euskal Herrian* / Testugile, Joan San Martin. Gordailu, Donostia, 1983.
  - *Landuz: gure Herriko gauzak = Cosas de nuestro País*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, San Sebastián, 1983.
  - *Jose Manterola* / Juan San Martin. Udal Euskara Batzordea, Donostia, 1985.
  - *Euskararen ostarreak* / Juan San Martin. Erein, Donostia, 1998.
  - «J.M. Iparragirre» in *José María Iparragirre. Erro-urratsak. Raíz y viento*. Bigarren liburukia, 87-94. orr. Keinu, Bilbo, 1999.
  - «Txillardegiren bibliografia». Azkue Biblioteka 912 (460.154) (0:77).
  - *Euskararen ostarreak*. Erein, Donostia, 1998.

- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Gabriel Arestik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak», «separata». Bilbo, 1985, 535-539. orr.
- *Literaturaren inguruan: saiakera*. Lur, Donostia, 1980.

## B. Kolaborazioak

- *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, «Bitoriano Gandiagaren oroitzapenez» 153-160. orr. «Mendata» bilduma, 2. Mendatako Udala, Mendata, (Bizkaia), 2001.
- *Antzinatek gaur egunera. Hondarribia* (Inprimategian).
- *1685eko kopla zaharrak*. / J.M. Lekuona, J.I. López de Luzuriaga, Antxon Narbaiza; hitzaurrea, Juan San Martin. Ego Ibarra, Eibar, 1992.
- *Heriotza Euskal Herrian* / Alberto Agirreazaldegia; Juan San Martin-en hitzaurrea. Kriselu, Donostia, 1989.
- *Baigorriko zazpi liliak* / Jean Duvoisin. Juan San Martinen edizio pres-taketa eta aintzin-solasa. Elkar, Donostia, 1987.
- *Euskera*: Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala: 1963-1964; 1965-1966. Etxebarria, Toribio: «Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar»: Aurkezpena: Juan San Martin. Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.
- *Hiru katakume kezkiak*. Juan San Martin'ek euskeratua. La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1969 (Abere alaiak; 4).
- *Kurrin txirrikumea eta bere jaiak*. Juan San Martin'ek euskeratua. La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1969.
- Peña Santiago, L.P.: San Martin, J. «Estudio etnográfico del valle de Urrault Alto (Navarra)», *Munibe*, 1966, XVIII, 69-159.
- Maraña, Felix: *Ataduras de noche y arena / Hondar eta gauezko loturak*. «Hitzaurrea» Juan San Martin, L. Haramburu, Donostia / San Sebastián, 1980.
- *Meendiño (Homenaxe a Meendiño)*. Edición e notas de Xesús Alonso Montero. Juan San Martinek euskarara itzulua. Vigo: Colexio Universitario, Universidade de Santiago, 1982.
- *Peru Abarka*. Mogel, Juan Antonio (1745-1804). Edición bilingüe realizada por R. M<sup>a</sup> de Azkue; prólogo a esta segunda edición, de Juan San Martin. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1966; «Prólogo» a la tercera edición, Bilbao, 1978; edición bilingüe realizada por R.M. de Azkue según versión de Juan C. de Cortazar; «prólogo» de Juan San Martin.

- *Monografía histórica de la Villa de Eibar* / por Gregorio de Mujika / con prólogo de Juan San Martín. Ayuntamiento, Eibar, 1984.
- *Montañas guipuzcoanas* por Luis Peña Basurto; con la colaboración de Juan San Martín. Itxaropena, Zarauz, 1963.
- *Pernando plaentxiatarra*: / Plaentxia-Eibarretan bildutako ipui sorta). Biltzalle, San Martín'dar Yon. Itxaropena, Zarautz, 1957.
- *Piru ahatetxoa* / Juan San Martín'ek euskeratua. La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1969.
- *Argazkiak / Fotografías*: Gipuzkoa-Donostia / aurkezpena = presentación, Xabier Otaño Etxaniz, Xabier Alkorta. Donostia / San Sebastián: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea = Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1986-1990. «Hitzaurreak» = prólogos, Juan San Martín, etab.
- *Ezti-tantak: olerkiak* / Sagartzazu'tar Kauldi Sataarka; aurkezpena, Juan San Martín. Elkar, Donostia, 1996.
- *Salbatore Mitxelena* / Juan San Martín... (et al.). Ed. Franciscana Aránzazu, Oñate, 1970, 2.
- *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2: «Arraten sortzen da bizitza» «separata», 849-866 orr. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.
- *El damasquinado de Eibar* / por Juan San Martín, Ramiro Larrañaga, Pedro Celaya. Patronato de Museo de Eibar, Eibar, 1981.
- *Federiko Krutwig-i omenaldia*: «Gure amagandiko Gabon kantak». Iker-10, 299-311. orr. «Separata»: Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.
- *Ulibarri Galindez, Jose Paulo*. Reproducción facsimil del *Gutunliburua* de José Pablo de Ulibarri y Galindez: homenaje del Consejo de Cultura de la Excma. Diputación de Alava en el bicentenario del nacimiento del escritor en Oquendo: Vitoria, agosto de 1975 / Jose Paulo Ulibarri Galindez-en *Gutunliburua* izeneko eskuzkribuaren facsimil gisako argitalpena: Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarrak Okondoko idazlearen gorazarretan, haren sortzearen berrehun urtehurrenkari. Gasteizen, 1975.eko abuztuan: «Agurra». Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Alava, Vitoria / Gasteiz, 1975.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Axularren omenez Euskaltzaindiak Urdazubin egindako batzarrea» L. Villasante, J. Haritschelhar. Bilbao: Euskaltzaindia, 1975: «Juan San Martinen Euskaltzaindian sartzea». 20. liburukia / Tomoa, (2. aldia). «Separata». Bilbo, 1975.
- *El escultor Juan de Anchieta* / José Camón Aznar; con prólogo de Juan San Martín. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1990.

- (Catecismo político. Euskara) *Jaquin-bide iritarautia Españiaco neurquidaren, edo constitucio berriaren erara adrezatua, erritarren arguidoraraco, gazteen icasbiderako, eta escola-maisuen usoraco / erderatic eusquerara itzulidu Apez Vicario J.F.A.. guipuztarrac. Ararteko, Gasteiz, 1991. Argitalpenaren arduraduna: Juan San Martin.*
- «Aita Luis Villasante Kortabitarte joan zaigu (1920-2000)», *Euskera* 2000, 1, 483-488.orr.
- «Léxico del estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue» in R.M. de Azkue: *Diccionario vasco-español-francés*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 93-104.

### C. Argitalpen elebidunak

- *Dichos y hechos / Esanak eta eginak*. Vitoria/Gasteiz: Ararteko, 1994.
- *Eibar eta Elgetako Toponomastika / Toponomástica de Eibar y Elgeta*. «Onomasticon Vasconiae» bilduma, 21. liburukia. Eibar eta Elgetako Udalak - Euskaltzaindia. Bilbo, 2000.
- *Giza eskubideen inguruan / En torno a los Derechos Humanos*. Elkarlanean. Donostia, 2000.
- *Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoa: historia, arkitektura eta artea / Sta María de la Asunción de Hondarribia: historia, arquitectura y arte*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamntua. «Ondare» bilduma. Donostia, 1998.
- «Hitzaurrea» in *Argazkiak / Fotografías*. Argitalpen eta Publikapen Gipuzkoar Erakundea 1986-1990. Donostia, 1986.
- *Euskadi. Arartekoa*. «Eusko Legebiltzarrari txosten berezia 1992-1993 / Ararteko». Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco. Vitoria/Gasteiz, 1990, 1992, 1993, 1994.
- *Euskadi. Arartekoa*: «Psikiatrikoak: ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera / Los psiquiátricos: situación de los enfermos mentales en los hospitales psiquiátricos». Vitoria / Gasteiz, 1992.
- *Antzinako Eibar: etnografia gaiak / Temas de etnografía del antiguo Eibar / Juan San Martin, Ego Ibarra, Eibar, 1993.*
- *Bidez: gure Herriko gauzak / Cosas de nuestro País*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia / San Sebastián, 1981.
- *Gogoz: gure Herriko gauzak / Cosas de nuestro País*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1978.

- *Landuz: gure Herriko gauzak / Cosas de nuestro País*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia / San Sebastián, 1983.
- *Giro gori / Juan San Martín «Otsalar»*. Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 1998.

## D. Gaztelaniaz

- *Escritores euskéricos* (Catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence) La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.
- *Elgueta con Anguiozar y Ubera*. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, San Sebastián, 1975.
- «Eibar»: *Diccionario Enciclopédico Vasco*. Auñamendi, X. Liburukia, 180-272 orr. Donostia, 1979.
- «Existe-t-il un art basque?» in *Etre basque* entziklopedia, 311-349.orr. Toulouse, 1983.
- «¿Existe un arte vasco?» In *Ser vasco*, 311-156.orr. Bilbo, 1986.
- «Las artes del Pueblo Vasco» in *Euskalerrria*. Bartzelona, 1987.
- *Los Zuluaga: dinastía de artistas vascos / Ramiro Larrañaga...* (et al.). «El pintor Ignacio Zuluaga», V. Kapituluua, 195-277. Ramón Suárez Zuluaga, Zuluaga, Museo Zuluaga, San Sebastián, 1988.
- *Escritores euskéricos* (Catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence). La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1968.
- «Prólogo» in *El escultor Juan de Anchieta - Camón Aznar, José*. Diputación Foral de Gipúzcoa. Donostia, 1990
- *Viaje por el país de los recuerdos*. Toribio Echevarria. «Prólogo» de Juan San Martín (2ª edición facsimil). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia / San Sebastián, 1990.
- *Apéndice a escritores euskéricos: correcciones y adiciones a la primera edición* por Juan San Martín. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
- «Cornuz: notas sobre término y nobleza» / por Juan San Martín. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1988, 525-532 orr.. Ondokoaren separata: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Año 44, cuadernos 3-4, Donostia / San Sebastián.
- «Don Carmelo de Echegaray: su aportación a la Literatura en vascuence» in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Separata. Año 41, cuadernos 1-2. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Donostia / San Sebastián, 1985.

- Julio Beobide. (Biblioteca: *pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana*; v. 23, fasc. 246) La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973.
- «Luis Pedro Peña en las investigaciones etnográficas: tiempo de recuerdo» in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria / Boletín de Estudios del Bidasoa / Revue d'études de la Bidassoa*, Separata, N. 13. Luis de Urantzuzu Kultur Taldea, Irun, 1996.
- «Ofizio eta tituludun etxe izenak Hondarribian» in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria...*, Separata, N. 15. Irun, 1997.
- «Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian» in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria...* Separata N. 19. Irun, 1999.
- «Vocabulario euskaro adicional del padre Esteban de Andoain» in *Fontes Linguae Vasconum Studia et Documenta*. Separata, N. 26. Aranzadi, Pamplona, 1977.

\* \* \*

LANBIDE ALDETIK, Juan San Martin, Eibarren, sorterrian, industria arloko zenbait espezialiteren esparruan aritu izan zen, eta, ondoren, makineria inportatzen zuten enpresetan lankidetzaz eskaini izan du.

GAZTE-GAZTETATIK irakurketa-zaletasuna bizi-bizirik izan du eta honek eman dio autodidakta oinarriaren heziketa.

GAZTE-GAZTETATIK Eibarko Kirol klubean parte hartu izan du. Berton zenbait kargu izan zituen, eta besteak beste, burua izatera heldu zen, Klub barruan –gizarte eratze mailan– zenbait arlotan banandu izanez, ohiturari jarraituz. Eta ohiturei jaramonik egin gabe kultura saila sortu zuen, bertako biblioteca garaturik; honela, kirol ekintzen osagarri modura, berbaldiak, ikastaroak eta zenbait erakusketa antolatuz.

BESTALDE, Juan San Martinen kirola mendizaletasuna izan da, era guztietakoak praktikara eramanez, alegia, mendigoizaletasuna, eski, eskalada eta espeleologia. Garai batez Eskalada eta Mendigoizale eskolako irakasle-gidaria izan zen. Aipatzekotan Bulnes-ko Naranjo mendia igo zuen hiru bide desberdinetatik, eta baita Pirinioetako zenbait mendigailurretara igotzeko bide berriak urratzen aintzindari izan zaigu. Europako mendigain behinenean mendigunetako ibilbideak burutu izan ditu eta baita Pirinioetako eta Alpeetako mendikate gehientsuenak ere bai.

LARRAN SAN MARTIN leizera espedizio espeleologikoetan parte hartu izan zuen. Honetaz guztionetaz *Pyrenaica* eta *Munibe* argitalpenetan azaldu ditu aipaturiko mendi ibilaldi eta ekintzak. Eta hau guztiau kontuan izanik, 1955. urtean, Espainiako Mendi Federazioak, zilarrezko domina eskaini zion haren kirol merituetatik.

Eta, 1964.urtean, Baionako Euskal Idazleen entitateak, «Lauaxeta Saria» eskaini zion buruturiko kazetari lanengatik.

Euskal Herritik zehar ibili zaigunez gero, jarraiko diziplinez kezkatu bizi izan zaigu, alegia: historiaurrea, linguistika, artea eta etnografia. Honela ba, historiaurreko zenbait aztarnategi –erromatarren garaikoak– eta artelan batzuk identifikatu egin ditu. Aldi berebean, zenbait herri kanta eta eskuz egindako lanen bilketaz arduraduna izan dugu.

Bestalde, Juan San Martinek izandako harreman anitzen artean, bereziki, Jose Migel Barandiaran eta Julio Caro Barojarekin izandakoak azpimarratu behar dira.

Politika eremuan, Espainiako Transizio politikoaren garaian Arte Ederretako Kontseilaria izendatua izan zen. Eta, beste alde batetik, zenbait urtez, Donostiako San Telmo Museoko Zuzendaritzako kidea izana da.

Goian aipaturikoaren bizitza geldi ezina eta jakituriaren bila aritu izan da. Horregatik, goian nabarmendu izan denez, hainbat eta hainbat liburu eta txosten argitaratu. 2001.urtean, Anton ABBADIA sarirako, hautagaia izan zen. Bestalde, toki anitzetan hitzaldi ugari eskaini ditu.

Azkenik azpimarratzekoa da, 2001.urtean, Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, «Juan San Martin» beka sortu duela, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko.

Ricardo Badiola Uriarte